

IRUERREKETA

Deba ibaiaren sorburuak

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Eskoriatzatik, Gasteiz eta Eibar lotzen dituen GI-627 errepidean Gasteizera bidea hartuko dugu, eta Arlaban portua igotzen ari garela, 21. kilometro puntutik 20. puntura bidean 0,400 km inguru pasatu ondoren -txirrindularien patroia Dorletako Andre Mariaren santutxoarean- gure noranzkoaren beste aldetik irekitzen den pistari helduko diogu.

Itsasbide hori Sanjuanzar baserriaren (San Juan Bataiatzaile eta Ebanjelariaren ermitaren hondarren gainean eraikia) eta haren garai bateko kare tokiaren aurrean (parez pare, pistaren ezkerretan), langa kanadar bat igaroz eta Domiñaga baserria eskuinetarantz utziz, berehalaxe irtengo gara aparkaleku-zabalgune batean, eta hantxe utziko dugu autoa.

Era berean, Eskoriatzatik ere iritsi gaitezke, GI-3310 errepidea Leintz

Gatzaga aldera hartuta, eta, udalerrir horretako herrigune historikoa zeharkatu eta 7 km inguru egin ostean, Arlabango portura iritsiko gara (599 m). Gain horretan, lehen aipaturiko GI-627 errepidea hartuko dugu ezkerretan, Eskoriatza bidean, eta 19. kilometro puntura ailegatu eta 0,6 km eginda, eskuinetarantz jotzen duen hormigoizko pista bat hartuko dugu, Nordebizi etxea baino apur bat lehenago, Dorletako Andre Maria santutxoaren pare-parean. Eta aurretik deskribatutako moduan jarraituko dugu.

Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek 4,5 km ditu guztira, eta ez du batere zailtasunik. Halaber, ez du eskatzen ekipamendu berezirik, mendi ibilietarako oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Leintz Gatzaga udal mugartearen igarotzen da, Aizkorri-Aratz Natura Parkearen barruan bilduriko lurretan; Deba ibaiaren eskuineko isurialdearen parean joango gara une oro, eta haren sorburua topatuko dugu Gipuzkoako lurraldeko hego-mendebaldeko erpinean.



1 de 5



Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra
Hidraulikoko Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Gipuzkoa hegoaldean eta Araba iparraldean dago Aizkorri-Aratz, eta naturagune babestu deklaratu zuten 2006an. Ia 16.000 hektarea ditu hainbat udalerri eta entitatetan: Aretxabaleta, Eskoriatza, Legazpi, Leintz Gatzaga, Oñati, Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria Orokorra, Zegama eta Zerain Gipuzkoan, eta Araban, berriz, Asparrena, Barrundia, Apota-Ubarrundiako Partzoneria, Donemiliaga eta Zalduondo. Zirkunskripzio osoa Kontserbazio Eremu Berezizat hartua da, Natura 2000 sarearen barruan (biodibertsitatea kontserbatzeko Europar Batasuneko eremuen sarea).

Deba ibaia 58 km inguru luze da, eta Iruerreketa inguruan sortzen da, Leintz Gatzaga udalerriaren lurretan, eta Kantauri itsasora ematen du, itsasadar bat sortuz Deba udalerrian. Gipuzkoako mendebaldeko ertzean dago. Haren ibilgua, besteak beste, udalerri hauetan barrena igarotzen da: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Soraluze, Elgoibar, Mendaro eta lehen aipaturiko Deba.

Zati handi batean garai bateko zaldi bide baten parean trazatutako baso pista batean sarturik, inausitako pagadi ikusgarrien eta harizti zoragarrietan barrena tipi-tapa, ekologiaren eta paisaiaren aldetik sekulako balioa duten parajeak zeharkatuko ditugu, eta edozer urtarotan eskaintzen diguten ikuskizun kromatiko txundigarriaz gozatuko dugu.



Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabea jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.

Domiñaga baserriaren parean egokituriko aparkaleku-plataformatik (WP 1), hartxintzarrezko bide zorua duen baso pista bati helduko diogu, zeina ekarri dugun norantzaren kontrari irekitzen baita.

Waypoint (WP)



1. Hasiera

Ezkerretan, Domiñagako basoa izenez ezagutzen dena zabaltzen da, berriki Douglas izeiekin birlandaturia. Baso hori baso pinu sartuta egon da oraindik oraintsura arte eta 85 urtez baino gehiagoz (pinu gorria). Eskuinetan kultibo soroak eta larreak ikusiko ditugu. Domiñagaren esanahi berarekin eta, zalantzarik gabe, aurretik aipatu dugun basoa baino historia handiagoarekin, belaunaldiz belaunaldi baserriko kolonoek eginiko esku hartze neketsuen emaitza dira, jatorrizko baso labore eta larre soro oparo bihurtuz eta, horrenbestez, une bakoitzak eskatu izan dituen premietara egokituz. Gaur egun, eta urte batzuetatik hona, eremu horiek abelgorriak maneiatzera eta ustiatzera bideratzen dituzte.



IRUERREKETA

Ia-ia ordokian igarotzen den ibilbide horretan, 300 m ingurura, hainbat pago inausi bikainez osaturiko multzo batek adieraziko ditu sartzen ari garela baso txikian. Une horretatik aurrera, ez da zaila izango orkatzen batekin harritzea, edo orkatza bera harritzea gurekin –espezie oso izua orain urte batzuetara arte–.

Une horretatik aurrera, hostozabalen masa itxi batean behera egingo dugu ia oharkabean (pagoak, haritzak, urkiak...), tarteka-marteka basa pinuen garai bateko landaketak direla, eta, 400 m inguru egin ostean, Garaikorta errekaaren osin bihurtunetsura iritsiko gara.

Uhar horren bidea igarota, pagadia ezkerretan dugula, Saratsondo aldera igoko da bidea poliki-poliki, hegalean erabat mozturik. Eskuinetan gero eta haritz gehiago ikusiko dugu, eta, ia-ia ohartu ere egin gabe, Tatandui aldeko harizti ikusgarrian barneratuko gara.

Inguru horiek etengabe aldatzen dira; bistakoenak udaberrian




Pagadi hau osatzen duten aleen konfigurazio okerra eta bihurria mende luzeetan eginiko arraseko mozketaren eta inausketen emaitza da: egur ikatza lortzea izaten zen horren helburua, batez ere burdinoletera bideratzeko. Halaber, egur asko behar izaten zuten inguru hauetan, inguru honetatik hurbil dagoen Leintz Gatzagako iturburu gazietako urak egosteko, eta, hala, bertako gatz preziatua eskuratzeko.

Kimaketa edo inausketa haritzak, pagoak eta beste hainbat zuhaitz ustiatzeko garai bateko modu tradizionala da. Landareak bi metro ingurura ebakitzen ziren, eta, zuzendutako hainbat ebakiren

bidez, kimu berriak ematen zituzten hainbat garaieratan, zeinak batez ere egur ikatza egiteko baliatzen baitziren, betiere arbolari zutik eutsiz eta, ondorioz, pagatxak animalien eskura ipiniz.

Mendian bertan eskuratzen zen egur ikatza, zabalgunek batean edo hegalean zulatutako irtengune berdindu batean –plaza edo txondor plaza deitzen zioten eremu horri–. Horretarako aukeratutako pago adarrak eta enborrak lehortu ondoren, plaza horietan metatzen zituzten egurrak kono itxurarekin eta lurrez estalirik (txondorrak, alegia). Su eman ostean, hainbat egunez egosi eta egur ikatz bilakatzen zen metatutako egurra.



Tantadui harizti ikusgarriak 14 hektarea ditu, eta orain 120 urte baino gehiago landatutako haritz kandugabeak ditu. Baso horixe da Gipuzkoan ondoen gorderiko eta bikainenetako bat, erabateko altxor botanikoa.

Tantaiak basa arbolak dira, funts luze eta zuzenak dituztenak eta sekula inausi gabeak; -dui atzizkiak, berriz, saila esan nahi du. Basa arbolen multzoa dugu, beraz, Tantadui. Gidaturik hazitako haritzak dira, argi bila goratzen direnak; horregatik dituzte halako funts luze eta zuzenak,


bai eta garaiera handia ere.

Haritzok emandako egurra oinarritzko materiala izan zen eraikin eta itsasontzietarako habeak egiteko, baita trenbide trabesak egiteko ere, haritz egurra gogorra baita egurats gorritan. Era berean, haritz egurrak estimazio handia izan du upelak eta altzariak egiteko, eta azalak, berriz, ontzeko gai gisa. Haritzek ematen dituzten ezkurak (pagoek ematen dituzten pagatxak bezalaxe) elikagai bikaina dira hainbat eta hainbat animaliaerentzat, izan basatiak, izan etxekotuak.

Haritzak arbola sakratutzat hartu izan dituzte oso aspaldiko garaietatik, eta haien azpian elkartzen ziren alkateak, haien itzalpean erabakitzen zuten epaileek eta haien babespean hitz ematen zuten erregeek. Botere magikoak eta sendatzaileak ere eman izan zaizkie, haien indarra eta urte luzetako bizitza transmitituko baligute bezala. Haritzaren sendotasunetik dator, hain justu ere, «gizon tantai» esapidea, inori gizakote esateko, edo gaztelaniaz ere «sano como un roble» esan izan da, osasun onari erreferentzia egiteko.

hostoberritzean eta udazkenean hostoak erortzean, bietan ere kolore sorta bikaina eta paraje ikusgarriak eskainiz.

Aurrerago joanda, berriro ere pago artean ibiliko gara, han-hemenka gorostiak ditugula. Zeharkatuko dugun pista, ia ibilbide osoan, garai bateko mandazainen eta ikazkinen bidearen aztarna sakonaren paraleloan igarotzen da; mende luzeetan, bide horietatik ateratzen zituzten mendi honetan



Pagadi eta harizti hauek sorleku, bizileku eta babes habitat dira makina bat basa espezierentzat, hala nola basurdeak, orkatzak, azeriak, azkonarrak, lepazuriak, katagorriak, muxarrak, lursaguak... Era berean, ohikoak dira basootan urubiak, zapelatzak, okilak, txepetxak, txantxangorriak, gerri-txoriak (zuhaitzen enborrean gora igotzen dira espiralean), eskinosoak... Horietaz gainera, narrastiak ere ugari dira, arrabioak, baso-igel gorriak, txantxikuak, ziraunak, Eskulapioren sugeak, suge berde-horiak, Seoane sugegorriak... Eta ohikoa izaten da,

orobat, artropodoz eta bestelako ornogabez osaturiko fauna askotarikoa ere.

Pagadiak oso baso laiotzak izaten dira, eta argi faltak galarazi egiten du oihanpean landareak garatzea; hori dela eta, pagadien barrualdea orbelez lodi egoten da, eta, horrez gainera, ia gorri edo goroldioz estalita. Gorostiak dira baso masa ia eksklusibo horretako zuhaixka nabariena; emeek fruitu gorri ikusgarriak ematen dituzte, zeinak negu partean heltzen baitira. Hariztietan, oster, argiak gehiago eman izan du, eta oihanpean gehiago

garatzen dira txilarra, isatsak, ahabiak eta halakoak.

Baso giro hauetan oso ohikoak izaten dira hainbat perretxiko ere, hala nola onddo preziatuak, gibelurdinak, hainbat eratako lanpernak eta beste hainbat espezie. Hori dela eta, batez ere udazken partean, hamaikatxo perretxikozale ibiltzen da ingurumariotan. Paraje hauetan bereizgarriak dira supizteko ardagaia ere, enbor zaharrak «apaintzen» dituzten parasitoak.



IRUERREKETA

sortutako egurrak eta egur ikatza, ondoren inguruetako udalerrietara eramateko.

Buelta guztian dugun baso pasaia ikusgarriaz gozatuz eta ezertarako ere utzi gabe dakargun bide nahasezina, berehalaxe, ezpondaren kontrako harri lubeta baten parean, Espainia eta Frantzia arteko Enagásen gasbidearen trazatuaren gainetik igaroko gara (1980an ipinia) bi zipresen arteko pasabidearen aurretik. Handik segituan, zabalgunee batean irtengo gara, garai batean egur zamaleku izandakoa eta gaur egun bidegurutze gisa agertzen zaiguna.

Puntu hori korrokoil samar ageri zaigu baso erabilera dela medio, eta, handik, eskuinetan beherantz

irekitzen den pistari helduko diogu (WP 2). Berrogeita hamar metro inguru egin orduko, Irueketa parajearen agertuko gara, Urkitza, Elgeamendi eta Anguta errekek bat egiten duten tokian (WP 3), zeina Deba ibaiaren sorlekutzat hartzen baita.

Pago inausi eta andui okerretan sarturik, tarteka-tarteka laritz eta zipres exotikoak dituztela, uraren joanarekin hainbeste markaturiko toki honek xarma berezia transmititzen du, bake eta sosegu txoko atsegina, tartetxo batez mirestea merezi duena.

Pixka batean atseden eta atsegin hartu ostean, etorri garen bidetik bueltatu besterik ez dugu egin beharko.

Waypoint (WP)

2. Hartu eskuineko bidea, beherantz



3. Amaiera. Itzulera bide beretik



Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.



gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta

5 de 5

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Oria
Hidraulikotasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro